

Gailu elektroniko bat eraman ohi dugu poltsikoan, poltsan..., gau eta egun. Askorentzat, ezinbesteko bihurtu da jada gailu hori. Mugikorrez ari gara, jakina. Baina, zer dakigu haiei buruz? Zer dakigu haien fabrikazioak eta erabilerak eragiten dituen inpaktuei buruz?

ALBOANek aspalditik aztertzen du munduaren egoera elkarrekiko mendekotasunaren ikuspegitik, eta herritartasun globalaren alde egiten du. Baina, ba al du zerikusirik horrek guztiak nire mugikorrarekin?

Bada, horixe da fitxa hauen bidez azaldu nahi duguna: zer lotura dagoen munduko egoeraren eta gure mugikorraren artean, eta zer egin dezakegun gogoko ez ditugun egoerak aldatzeko. Laburbilduz, hona gure proposamena: munduaren egoera ezagutu, hartaz arduratu eta aldatzen saiatu.

"Gatazkari gabeko teknologia" kanpainaren bidez, hau nabarmendu nahi dugu: gailu asko erabiltzen ditugula, eguneroko bizimoduan, jakin gabe nondik datozen, nola egin dituzten, zer gertatzen zaien bizitza baliagarria amaitzean...



Bada, gailu horietako mineral batzuek lotura estua dute azken urteotako gatazka bortitzenetako batzuekin. Kongoko ekialdea eta koltana ditugu adibide aipagarrienak. Dena dela, fitxen bidez ikusiko dugunez, egunero erabiltzen ditugun gailuetako askok badituzte nondik datozen ez dakigun mineralak eta metalak, gatazka finantzatzeko eta giza eskubideak urratzeko erabiltzen direnak, gainera.

Horregatik ekin diogu kanpaina honi, fitxa hau irakurtzen ari zaren horri eta zure inguruari zuzendua. Zuen ustez, aldatu al daiteke mundua? Aldatu egin behar al da? Bai, ezta? Has gaitezen, hortaz, hau jakitetik: zer dagoen gure mugikorraren atzean, nondik datozen, non eta nola egin eta muntatu dituzten, zer egiten den beraiekin bazterrera utzi eta jada erabiltzen ez ditugunean...

Aurkeztuko dizkizuegun fitxa hauetan dituzue, labor azalduta, gure bizimoduaren eta produkzio-sisteman diharduten gizon-emakumeen eskubide-urraketen arteko loturetako batzuk. Produktuaren bizi-ziklo osoa ere aztertuko dugu: lehengaiaren erauzketa, galdategia, gailu elektronikoen muntaketa industria elektronikoa, erabilera (gure gizartean) eta hondakin bihurtzea. Azkenik, fitxen bidez ikusiko dugu zer botere-eremutan eragin dezakegun, eta gure eguneroko bizimodurako zenbait ekintza eta proposamen jorratuko ditugu, egoera aldatzen saiatzeko.

Hona zer duen fitxa bakoitzak: gaiari ekiteko atariko bat, gai bakoitza jorratzeko jarduera-proposamen bat eta sakontzeko estekak zenbait webguneetara, non ikus-entzunezkoak edo bibliografia aurkituko duzun.

Ezagutu nahi al duzu gure proposamena? Prest al zaude lanari ekin eta mineralen, gatazken eta giza eskubideen urraketen arteko lotura eteten saiatzeko?

ARIKETA-PROPOSAMENA

ESAIDAZU NOR ZAREN!

Gaiarekin lehen harremana (kontakua) eta aurkezpena. Dinamika honen bidez, gure eguneroko bizimoduko produktu jakin bat mundu globalizatuarekin lotu nahi dugu, ikusirik hark duen inpaktua garapen-arazo orokorretan (birziklaketa, kontsumo-gizartea, minerala erazten den lekutik gure mugikorrerainoko bidea, muntaketa-industriak...).

Izena: Esadazu nor zaren! Aurkez zaitez, aurkez nazazu! (mundua gure mugikorraren bidez ezagutzen).

Helburua: Hurrengo proposamen honek lagundu egingo digu gaia jorratzen, baita poltsikoan daramagun gailu horri buruz gehiago jakiten ere.

Garapena: Eskatu taldeko kideei beren buruak mugikorraren bidez aurkezteko.

Galdera hauek lagungarri izan dakizkieke aurkezpena prestatzeko:

Jasotako erantzunekin laburpen bat egiten saiatu behar du dinamizatzaileak, eta eztabaida sortu agertzen diren gaiei buruz (adibidez, zenbat mugikor izan dituzten denen artean; bakarren batek mugikorrik ez badu, galdetu zergatik erabaki duen ez edukitzea). Helburua da esaten digutenarekin eztabaida bat sortzea jasangarritasunaz, mugikorrek gure eguneroko bizimoduan duten eraginaz, etengabe lokalizatuta egon beharraz, mineralen jatorrizko herrialdeen eta gureen arteko loturaz...

*Zer mugikor-mota da?
Marka eta modeloa ere aipa ditzakete.*

Norena da?

Zenbat mugikor izan ditu lehendik ikasle/pertsona horrek?

*Zer egin zuen mugikor zaharrarekin/
zaharrek? (birziklatu, bota, eman, beste norbaiti oparitu, gorde...).*

*Non egina da?
Non muntatua?*






*Nongoa da materiala?
Zer dakigu herrialde horiei buruz?*

*Zertarako erabiltzen
du mugikorra? (lanerako, harreman
pertsonaletarako...).*

Zenbat kostatu zaio?

Zergatik aldatu du?

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BALIABIDEAK

-  Kanpainaren webgunea: www.gatazkarikgabekoteknologia.org
-  ALBOANen hezkuntza-baliabideen webgunea: www.educacion.alboan.org
-  Edukalboan-en 9.alea: **Gatazka Mineralak**
-  Dokumentua "Breaking the links":
http://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2014/06/Rompiendo-los-vinculos_eus.pdf
-  Webgunea: www.movilesporelcongo.alboan.org



-en proiektu bat



lortzeagatik

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

